Kontratuen erregistroa 2023ko urtarrilean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko urtarrilean 42.044 pertsona kontratatu dira, joan den urteko urtarrilean baino 9.946 gutxiago (% 19,1ko beherakada). Abenduarekin alderatuta, aldiz, hazi egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 1.287 pertsona gehiago kontratatu dira, % 3,2ko gorakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 20.795 gizonezko eta 21.249 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan, 5.266 gizon gutxiago kontratatu dira eta emakumeen kasuan, 4.680 gutxiago.

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 36,62 da, eta baxuagoa da gizonena (36,33) emakumezkoena baino (36,91). Arabakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (35,85), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (37,24).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 32,63 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 44 urtetik gorakoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (35,55 eta 37,20 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 36,66 urte baitituzte gizonezkoen 33,11n aurrean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, eta azken hilabeteetan gertatutako berezitasunaren kontra, aldi baterako kontratatuko pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino gazteagoak (36,38 vs 37,09).

• JATORRIA

2022ko abenduan kontratatutako pertsonen % 18,4k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino 3 puntu altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 50,7k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 14,5ek Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 10,6k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa, % 9,4k Europako Erkidegokoa ez den herrialde batekoa, % 7,1ek Europako Erkidegoko herrialde batekoa eta % 6,5ek Asiakoa. Bertakoak atzerritarrak baino gazteagoak dira (36,56 eta 36,90 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrika iparraldeko herrialde batetik heldutako pertsonak dira gazteenak (36,16 urte) eta Europako Erkidegoko herrialde batetik heldutakoak, zaharrenak (39,02 urte).

Azken hilabeteko datuei erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan hazi da kontratatutako pertsonen kopurua. Gehien hazi den atzerritar taldea, balio absolutuetan, Europako Erkidegokoa ez den herrialde batetik etorritakoena izan da: 153 pertsona gehiago kontratatu dira (% 26,5eko gorakada); balio erlatiboetan, aldiz, igoera handiena Europar Erkidegoko taldean gertatu da, % 30 igo baita (126 pertsona gehiago).

Azken urteari erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri gehienetan murriztu da kontratatutako pertsonen; salbuespena, Latinoamerikatik etorritako pertsonen multzoa izan

da 104 pertsona gehiago kontratatu baitira (% 2,7 gehiago). Murrizketa handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batetik etorritakoen multzoak jasan du; 150 pertsona gutxiago eta % 15,5eko jatsiera.

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 41,1ek oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %21k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 18,4k unibertsitatekoak eta % 17,4k Lanbide Heziketako ikasketak.

Hileko erreferentzian, derrigorrezko ikasketak eta batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioa murriztu da; lehen kasuan 507 pertsona gutxiago (% 2,9ko beherakada) eta bigarren kasuan 33 gutxiago (% 0,4 gutxiago). Beste muturrean, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioak nabarmen egin du gora (+ 1.387 pertsona, % 20ko igoera) eta baita LHko ikasketak dituzten kontratazioak ere (% 6,2ko gorakada, 425 pertsona gehiago).

Urteko erreferentzian, ikasketa mota guztien kontratazioa murriztu egin da. Beherakada handiena, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da (-4.101 pertsona gutxiago kontratatu dira, % 19,2ko murrizketa); balio erlatiboetan, berriz, beherakada handiena lanbide heziketako ikasketak dituzten pertsonen kontratazioak jasan du (% 21,7ko beherakada, 2.021 pertsona gutxiago).

KONTRATUEN KOPURUAK

2022ko abenduan zehar kontratazio kopurua 56.072 izan da EAEn, horietatik 15.000 (% 26,8) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabeen ehunekoa handia izan da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2021ean hasitako joera sendotzen du, eta, 2022an areagotu egin da. Duela gutxi onartutako lan-erreformaren isla da, eta, badirudi, lege hau emaitzak lortzen ari dela ildo horretan. Kontratu mugagabea izan duten emakumezkoen kopurua haundiagoa da gizonezkoen aldean (% 29,1 eta % 24,6, hurrenez hurren).

Kontratazioa % 3,3 murriztu da aurreko hilabetearekiko (1.917 kontratu gutxiago); aurreko urtearekin alderatuta ere , murriztu egin da (% 23, 16.774 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Hil honetan, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Kontratazioko murrizketa nabarmenenak garraioan (-1.059), administrazio jardueretan (-930) eta administrazio publikoan (-592) gertatu dira. Gorakada handienak, aldiz, manufaktura industriak (+1.603),hezkuntzak (+851) eta eraikuntzak izan dute (+295).

Azken urtean, jarduera ia gehienetan murriztu da kontratazioa. Beheraka nabarmenenak, manufaktura industrian (-3.423), garraioan (-3.313) eta jarduera administratiboetan (-2.413) izan dira. Beste aldean, igo diren jarduera bakarrak, informazio eta komunikazio jarduerak (+45) eta aisialdiko jarduerak (+253) izan dira.

Kontratuen erregistroa 2023ko urtarrilean

• LANBIDEA

Hil arteko erlazioan, balio absolutuetan, zerbitzu kualifikatuen profilean murriztu da gehien kontratazioa (-1.746, % 9,6ko jaitsiera); balio erlatiboetan, aldiz, jaitsiera handiena laguntzako teknikari eta profesionalen profilean gertatu da, % 18,3ko jaitsiera izan baita (-1.148 kontratu). Beste aldean, hazkunde handiena, balio absolutuetan, teknikari eta profesional zientifikoen kontratazioak izan du, 1.138 kontratu gehiagorekin (% 16,3ko hazkundea); balio erlatiboetan, berriz, hazkunderik handiena lehen sektoreko kualifikatuen kontratazioak izan du, % 49,2ko hazkundearekin (64 kontratu gehiago).

Iazko hilabete beraren aldean, kontratazioak profil guztietan egin du behera, zuzendarien kasuan izan ezik, 19 kontratu gehiago izan baitira (% 11,3 gehiago). Beherakada handiena, balio absolutuetan zein erlatiboetan, ez-kualifikatuen profilean gertatu da (-6.814, % 31,4 gutxiago).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2023ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek eta kontratazioen jaitsierek pentsarazten digute lan-erreformak bere fruituak ematen dituela kontratu mugagabeen sendotasuna handitzerakoan; izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko urtarrilean sinatutako kontratuen % 34,8 lanaldi partzialekoak dira, % 46 emakumeen kasuan eta % 22,7 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 31,6 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 64,8), higiezinen jarduerak (% 55,1) eta etxeetako jarduerak (% 53). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 52,6), eta gutxien, artisau eta kualifikatutako langileena (% 7,1).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 18,2 Araban dago, % 50,3 Bizkaian eta gainerako % 31,5 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 18 kontratu gehiago sinatu dira (% 0,2ko gorakada), kontratazioak gora egin duen lurralde bakarra da; Gipuzkoan 186 kontratu gutxiago sinatu dira (% 1eko beherakada) eta Bizkaian, 1.749 kontratu gutxiago sinatu dira (% 5,8ko jaitsiera).

Aurreko urtearekin alderatuta, Arabak izan du jaitsiera handiena; kontratazioak % 30,3 egin baitu behera (4.419 kontratu gutxiago). Gipuzkoan % 18,5 jaitsi da (4.028 kontratu gutxiago) eta Bizkaian % 22,8koa izan da beherakada (-8.327 kontratu).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2022eko urtarrilean sinatutako kontratuen % 21,9 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 30 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 14,1 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 7 murriztu dira; 2022eko urtarrilarekin alderatuta, % 38,6koa izan da murrizketa.



		Urt-2023	Abe-2022	Urt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	15.000	12.345	8.664	2.655	21,51	6.336	73,1
	Aldi baterakoa	41.072	45.644	64.182	-4.572	-10,02	-23.110	-36,0
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
	Mugagabeen %	26,8%	21,3%	11,9%	5,46		14,86	
Sexua	Gizona	27.008	27.206	35.983	-198	-0,73	-8.975	-24,9
	Emakumea	29.064	30.783	36.863	-1.719	-5,58	-7.799	-21,2
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
	Emakumeen %	51,8%	53,1%	50,6%	-1,25		1,23	
Mugagabea	Gizona	7.864	6.354	4.491	1.510	23,76	3.373	75,1
	Emakumea	7.136	5.991	4.173	1.145	19,11	2.963	71,0
	Guztira	15.000	12.345	8.664	2.655	21,51	6.336	73,1
Aldi baterakoa	Gizona	19.144	20.852	31.492	-1.708	-8,19	-12.348	-39,2
	Emakumea	21.928	24.792	32.690	-2.864	-11,55	-10.762	-32,9

Kontratuen erregistroa 2023ko urtarrilean

		Urt-2023	Abe-2022	Urt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Guztira	41.072	45.644	64.182	-4.572	-10,02	-23.110	-36,0
Guztira	Gizona	27.008	27.206	35.983	-198	-0,73	-8.975	-24,9
	Emakumea	29.064	30.783	36.863	-1.719	-5,58	-7.799	-21,2
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
Mugagabeen tasa	Gizona	29,1%	23,4%	12,5%	5,76		16,64	
	Emakumea	24,6%	19,5%	11,3%	5,09		13,23	
	Guztira	26,8%	21,3%	11,9%	5,46		14,86	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.745	4.050	2.793	695	17,16	1.952	69,9
	Aldi baterakoa	14.770	17.298	25.551	-2.528	-14,61	-10.781	-42,2
	Beste batzuk	36.557	36.641	44.502	-84	-0,23	-7.945	-17,9
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
	LP tasa	34,8%	36,8%	38,9%	-2,01		-4,11	
Lanaldi partziala	Gizona	6.139	7.043	9.215	-904	-12,84	-3.076	-33,4
	Emakumea	13.376	14.305	19.129	-929	-6,49	-5.753	-30,1
	Guztira	19.515	21.348	28.344	-1.833	-8,59	-8.829	-31,1
	Gizonen tasa	22,7%	25,9%	25,6%	-3,16		-2,88	
	Emakumeen tasa	46,0%	46,5%	51,9%	-0,45		-5,87	
	Tasa guztira	34,8%	36,8%	38,9%	-2,01		-4,11	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	116	136	431	-20	-14,71	-315	-73,1
	Beste batzuk	55.956	57.853	72.415	-1.897	-3,28	-16.459	-22,7
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
	Prestakuntzakoak (%)	0,2%	0,2%	0,6%	-0,03		-0,38	
L. historikoa	Araba	10.171	10.153	14.590	18	0,18	-4.419	-30,3
	Bizkaia	28.212	29.961	36.539	-1.749	-5,84	-8.327	-22,8
	Gipuzkoa	17.689	17.875	21.717	-186	-1,04	-4.028	-18,5
	EAE	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
Gizonak	Lehen sektorea	409	270	458	139	51,48	-49	-10,7
	Erauzketa-industriak	12	6	18	6	100,00	-6	-33,3
	Manufaktura-industriak	6.444	5.149	9.026	1.295	25,15	-2.582	-28,6
	Energia	8	10	17	-2	-20,00	-9	-52,9
	Ura	261	332	391	-71	-21,39	-130	-33,2
	Eraikuntza	1.879	1.395	2.447	484	34,70	-568	-23,2
	Merkataritza	2.860	2.881	3.603	-21	-0,73	-743	-20,6
	Garraioa	3.214	4.103	5.977	-889	-21,67	-2.763	-46,2
	Ostalaritza	2.352	2.654	2.397	-302	-11,38	-45	-1,9
	Informazioa eta komunikazioa	1.098	1.343	1.194	-245	-18,24	-96	-8,0
	Finantzak eta aseguruak	140	114	112	26	22,81	28	25,0
	Higiezinen sektorea	34	43	31	-9	-20,93	3	9,7
	Zientifikoak eta teknikoak	792	598	1.218	194	32,44	-426	-35,0
	Administraziokoak	2.498	2.642	3.063	-144	-5,45	-565	-18,4
	Administrazio publikoa	397	776	590	-379	-48,84	-193	-32,7
	Hezkuntza	999	768	1.531	231	30,08	-532	-34,7
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.658	1.880	2.154	-222	-11,81	-496	-23,0
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.452	1.731	1.251	-279	-16,12	201	16,1
	Beste zerbitzu batzuk	410	422	412	-12	-2,84	-2	-0,5
	Etxeetako jarduerak	91	89	91	2	2,25	0	0,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	0	0	2	0		-2	-100,0
	Guztira	27.008	27.206	35.983	-198	-0,73	-8.975	-24,9
Emakumeak	Lehen sektorea	33	60	44	-27	-45,00	-11	-25,0
	Erauzketa-industriak	1	2	0	-1	-50,00	1	
	Manufaktura-industriak	2.071	1.763	2.912	308	17,47	-841	-28,9
	Energia	10	9	12	1	11,11	-2	-16,7
	Ura	44	44	45	0	0,00	-1	-2,2
	Eraikuntza	148	128	170	20	15,63	-22	-12,9
	Merkataritza	4.045	4.320	5.091	-275	-6,37	-1.046	-20,5

Kontratuen erregistroa 2023ko urtarrilean

		Urt-2023	Abe-2022	Urt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Garraioa	973	1.143	1.523	-170	-14,87	-550	-36,1
	Ostalaritza	3.856	4.213	4.589	-357	-8,47	-733	-16,0
	Informazioa eta komunikazioa	856	977	715	-121	-12,38	141	19,7
	Finantzak eta aseguruak	121	156	187	-35	-22,44	-66	-35,3
	Higiezinen sektorea	55	42	63	13	30,95	-8	-12,7
	Zientifikoak eta teknikoak	903	728	1.365	175	24,04	-462	-33,8
	Administraziokoak	3.059	3.845	4.637	-786	-20,44	-1.578	-34,0
	Administrazio publikoa	507	720	693	-213	-29,58	-186	-26,8
	Hezkuntza	2.713	2.093	3.441	620	29,62	-728	-21,2
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.504	7.044	8.084	-540	-7,67	-1.580	-19,5
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.007	1.297	955	-290	-22,36	52	5,4
	Beste zerbitzu batzuk	649	779	732	-130	-16,69	-83	-11,3
	Etxeetako jarduerak	1.508	1.420	1.604	88	6,20	-96	-6,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	0	1	1		0	0,0
	Guztira	29.064	30.783	36.863	-1.719	-5,58	-7.799	-21,2
Guztira	Lehen sektorea	442	330	502	112	33,94	-60	-12,0
	Erauzketa-industriak	13	8	18	5	62,50	-5	-27,8
	Manufaktura-industriak	8.515	6.912	11.938	1.603	23,19	-3.423	-28,7
	Energia	18	19	29	-1	-5,26	-11	-37,9
	Ura	305	376	436	-71	-18,88	-131	-30,0
	Eraikuntza	2.027	1.523	2.617	504	33,09	-590	-22,5
	Merkataritza	6.905	7.201	8.694	-296	-4,11	-1.789	-20,6
	Garraioa	4.187	5.246	7.500	-1.059	-20,19	-3.313	-44,2
	Ostalaritza	6.208	6.867	6.986	-659	-9,60	-778	-11,1
	Informazioa eta komunikazioa	1.954	2.320	1.909	-366	-15,78	45	2,4
	Finantzak eta aseguruak	261	270	299	-9	-3,33	-38	-12,7
	Higiezinen sektorea	89	85	94	4	4,71	-5	-5,3
	Zientifikoak eta teknikoak	1.695	1.326	2.583	369	27,83	-888	-34,4
	Administraziokoak	5.557	6.487	7.700	-930	-14,34	-2.143	-27,8
	Administrazio publikoa	904	1.496	1.283	-592	-39,57	-379	-29,5
	Hezkuntza	3.712	2.861	4.972	851	29,74	-1.260	-25,3
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	8.162	8.924	10.238	-762	-8,54	-2.076	-20,3
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.459	3.028	2.206	-569	-18,79	253	11,5
	Beste zerbitzu batzuk	1.059	1.201	1.144	-142	-11,82	-85	-7,4
	Etxeetako jarduerak	1.599	1.509	1.695	90	5,96	-96	-5,7
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	0	3	1		-2	-66,7
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
Gizonak	<>	0	0	1	0		-1	-100,0
	Zuzendaritza	124	86	113	38	44,19	11	9,7
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.073	2.510	3.383	563	22,43	-310	-9,2
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.707	3.506	3.538	-799	-22,79	-831	-23,5
	Administrazioko langileak	1.237	1.339	2.151	-102	-7,62	-914	-42,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.214	5.794	5.837	-580	-10,01	-623	-10,7
	Oinarrizko kualifikatuak	183	116	200	67	57,76	-17	-8,5
	Industriako kualifikatuak	3.221	2.826	4.308	395	13,98	-1.087	-25,2
	Operadoreak	3.481	3.419	4.578	62	1,81	-1.097	-24,0
	Kualifikatu gabeak	7.768	7.610	11.874	158	2,08	-4.106	-34,6
	Guztira	27.008	27.206	35.983	-198	-0,73	-8.975	-24,9
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	63	53	55	10	18,87	8	14,5
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.061	4.486	5.907	575	12,82	-846	-14,3
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.429	2.778	2.932	-349	-12,56	-503	-17,2
	Administrazioko langileak	2.239	2.284	2.863	-45	-1,97	-624	-21,8
	Zerbitzuetako kualifikatuak	11.144	12.310	13.761	-1.166	-9,47	-2.617	-19,0

Kontratuen erregistroa 2023ko urtarrilean

		Urt-2023	Abe-2022	Urt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	11	14	17	-3	-21,43	-6	-35,3
	Industriako kualifikatuak	361	333	643	28	8,41	-282	-43,9
	Operadoreak	649	625	870	24	3,84	-221	-25,4
	Kualifikatu gabeak	7.107	7.900	9.815	-793	-10,04	-2.708	-27,6
	Guztira	29.064	30.783	36.863	-1.719	-5,58	-7.799	-21,2
Guztira	<>	0	0	1	0		-1	-100,0
	Zuzendaritza	187	139	168	48	34,53	19	11,3
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	8.134	6.996	9.290	1.138	16,27	-1.156	-12,4
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	5.136	6.284	6.470	-1.148	-18,27	-1.334	-20,6
	Administrazioko langileak	3.476	3.623	5.014	-147	-4,06	-1.538	-30,7
	Zerbitzuetako kualifikatuak	16.358	18.104	19.598	-1.746	-9,64	-3.240	-16,5
	Oinarrizko kualifikatuak	194	130	217	64	49,23	-23	-10,6
	Industriako kualifikatuak	3.582	3.159	4.951	423	13,39	-1.369	-27,7
	Operadoreak	4.130	4.044	5.448	86	2,13	-1.318	-24,2
	Kualifikatu gabeak	14.875	15.510	21.689	-635	-4,09	-6.814	-31,4
	Guztira	56.072	57.989	72.846	-1.917	-3,31	-16.774	-23,0
ABLE	Gizonak	6.260	6.637	10.690	-377	-5,68	-4.430	-41,4
	Emakumeak	2.941	3.251	4.301	-310	-9,54	-1.360	-31,6
	Guztira	9.201	9.888	14.991	-687	-6,95	-5.790	-38,6
Pertsona-kopurua	Gizonak	20.795	19.428	26.061	1.367	7,04	-5.266	-20,2
	Emakumeak	21.249	21.329	25.929	-80	-0,38	-4.680	-18,0
	Guztira	42.044	40.757	51.990	1.287	3,16	-9.946	-19,1
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	17.283	17.790	21.384	-507	-2,85	-4.101	-19,2
	Batxilergoa	8.817	8.850	10.977	-33	-0,37	-2.160	-19,7
	LHko ikasketak	7.300	6.875	9.321	425	6,18	-2.021	-21,7
	Unibertsitate-ikasketak	8.314	6.927	10.019	1.387	20,02	-1.705	-17,0
	Atzerritarra	7.730	7.239	8.091	491	6,78	-361	-4,5
	Bertakoa	34.314	33.518	43.899	796	2,37	-9.585	-21,8
	<>	27	21	34	6	28,57	-7	-20,6
	Aberrigabea	47	66	60	-19	-28,79	-13	-21,7
	Europako Erkidegoa	546	420	633	126	30,00	-87	-13,7
	Erkidegokoa ez den Europa	730	577	842	153	26,52	-112	-13,3
	Txina	77	64	80	13	20,31	-3	-3,8
	Japonia	3	4	5	-1	-25,00	-2	-40,0
	Asiako beste herrialde bat	422	409	393	13	3,18	29	7,4
	Saharaz hegoaldeko Afrika	818	735	968	83	11,29	-150	-15,5
	Afrikako iparraldea	1.124	1.115	1.240	9	0,81	-116	-9,4
	Ipar Amerika	13	11	18	2	18,18	-5	-27,8
	Erdialdeko eta Hego Amerika	3.922	3.816	3.818	106	2,78	104	2,7
	Ozeania	1	1	0	0	0,00	1	
	Atzerritarrak guztira	7.730	7.239	8.091	491	6,78	-361	-4,5